



KATUAK EZ DIRA HONAINO SEKULA IRISTEN

Seve Calleja

Iñaki Zubeldiaren itzulpena
Enrique Morenteren marrazkiak

Desclée De Brouwer

I

Osaba Dariok, Rokeren aitonak, etxe zahar bat dauka, berak eraberritua, upategietara eta gero mahastietara doan gurdibidearen goiengan. Hara heltzeko, ia herri osoa zeharkatu behar da; baina, hara helduz gero, Santa Barbara ikus daiteke marrazki bat bezala oso-osorik. Eta orduan ez da lehentxeago iruditu zaigun bezain handia, edo garai batean izan zen bezalakoa; sasoi hartan ez zegoen traktorarik eta herria langile arrotzez betetzen zen, alkoholdegira, mahatsa edo almendra biltzera zetorren jendez, eta botika bat zeukan, hiru kafetegi eta zine bat ere bai. Hau gertatzen zen aitonak gutxi gorabehera Roke bilobaren adina zeukanean, familia osoarekin ipar aldera emigratu behar izan zuenean, Labe Garaiek mundu guztiari lana ematen zitelako.

Osaba Dario, Sestaon, Marrodan errioxarra soilik zen; pertsonaia herrikoi eta ospetsu egin zelako egunkariak berataz hitz egiten zutenean ere bai, abestiko Labe Garai ahaltzu haiek, Bilbo osoa argitzen zutenak, ahuldu eta minialtzairutegi kaxkar eginda geratu ziren arte. Gero lana gutxitu egin zen eta askok etxebizitza saldu egin behar izan zuten eta beren jaioterrietan etxe zaharren bat erosi behar izan zuten, osaba Darioren upategi zahar hau bezala, bere eskuekin berritu zuena.

Baina Santa Barbara garai bateko distira galtzen joan bada ere, bere udatiarrak, hiru kafetegiak, teilatuak, oliba xehatzeko dolareak eta gurditegiak galduz, oraindik inork ez dio ostu bere klima gozoa: udan itzalean, eta neguan, mendizerraren babesean, hau eguzkiari, haizekirriari edo euriari pasatzen uzteko itxi eta ireki egiten baita, herria mimatuz, gaizki hezitako ume bihurtu arte, bere klimaren, bakardadearen eta izenaren gordetzaile zeken bihurtuz.

—Ni itzuli nintzenean, Santa Barbara ez zen ageri jada ez mapetan ez bidaia-liburuetan —aipatzen du sarritan Rokeren aitona—, horrela deitzen denetik eta bere izen propioa ahaztu zuenetik erromatarren edo godoen hondakinen azpian edota arabiarrek lehenengo eta gero frantsesek utzi zituzten zabortegien azpian, herri hau ez baita egunkarietako notizia izan; ez edukitzeagatik ez dauka ezta bere herriko seme ospetsu baten izenik ere kale bati jartzeko, edota gotzain batena besterik ez bada, inguruko beste batzuek duten bezala, edota militar edo sendagile batena. Horregatik kaleak Kantoi kale, Aldapa edota Sakana izenez ezagutzen dira oraindik, garai batean galtzadarria jarri zutenean bezala. Baina, ikusiko duzue, gure Roke honek nola bihurtzen duen ospetsu garai batean izan zen bezala, ezta hala, Roke? —dio bromatan aitona.

* * *

